

Unibertsitate-bekak (2025-2026ko ikasturtea): tramitazioari buruz sarritan egiten diren galderak

1. [Zeintzuk dira unibertsitate-beka tramitatzeko faseak?](#)
2. [Nire beka ebatzi den behin-behineko proposamena argitara eman dela aditzera emateko e-mail bat jaso dut. Non bila dezaket informazioa?](#)
3. [Nire beka ebatzi da, baina ez dut inolako abisurik jaso. Nola konpon dezaket arazoa?](#)
4. [Ados nago proposamenarekin. Zer egin behar dut?](#)
5. [Ez nago ados proposamenarekin. Zer egin dezaket?](#)
6. [Zer egin behar dut proposamena kontsultatzeko, onartzeko edo alegazioak aurkezteko?](#)
7. [Elkarbizitza unitatearen pertsona konputagarriak eta errolda-agiriko pertsonak ez dute bat egiten, zergatik?](#)
8. [Beste ikasle batzuek publikazioaren berri izan dute eta nik ez. Zergatik ez da nire beka ebatzi?](#)
9. [Zer osagai jaso daitezke bekan?](#)
10. [Noiz ordainduko zaizkit osagaiak?](#)
11. [Gaur matrikulatuta nagoen kredituen kopuruaren arabera kalkulatu da proposamena, baina matrikula zabalduko dut. Zer egin behar dut?](#)
12. [Beka eman didate eta, ordainketa egin aurretik, kontu-zenbakia aldatu nahi dut. Zer egin behar dut?](#)
13. [Beka eman didate eta uko egin nahi diot, ikasketak utzi ditudalako edo bateragarri ez den beste beka bat jaso dudalako. Zer egin behar dut?](#)
14. [Ez didate garraioaren osagaia eman, baina gastu hori ordaindu behar dut.](#)
15. [Ez didate bizilekuaren osagaia eman eta alokatutako etxebizitza batean nengoela jarri nuen eskaeran. Zer egin behar dut?](#)
16. [Proposamena onartu dut baina, geroago, osagai bat falta dela eta alegazioak egin nahi ditudala konturatu naiz. Zer egin dezaket?](#)
17. [Beka eman didate, baina dagozkidan osagaien % 50 besterik ez didate ordaindu. Zein da arrazoa?](#)
18. ["007 arrazoiarengatik- diru-sarrerak behar bezala ez justifikatzea-" ukatu didate beka. Zer alega dezaket?](#)
19. ["014 arrazoiarengatik- etxebizitzaren kopurua gainditzea" edo "141 arrazoiarengatik – Baimendutako balio katastrala gainditzea" ukatu didate beka. Adierazten diren jabetzak ez ditut. Zer alega dezaket?](#)
20. [Beka ukatu didate 008 arrazoiarengatik "Foru Ogasunek ez dute ezagutzen ekonomia sostengatzaile den kideren bat edota bere diru-sarrerak "0" kopuruarekin azaltzen dira, horretarako arrazoirik eman gabe", zer esan nahi du?](#)
21. [Alegazioak egiteko epea pasa da eta eskaeran akats bat dagoela konturatu naiz. Nola egin dezaket erreklamazioa?](#)
22. [Gai ekonomiko batengatik ukatu didate beka eta kontuan hartu diren diru-sarrerak ezin direla zehatz-mehatz erakutsi aditzera emateko abisu bat aterata da. Zergatik ezin dut ikusi?](#)
23. [Beka eman didate, baina prezio publikoen zenbatekoa "0" edo benetan dagokionaren % 50 agertzen da. Zergatik ez dut prezio publiko osoa jasoko?](#)

1. Zeintzuk dira unibertsitate-beka tramitatze faseak?

Eskaera aurkeztu denetik eman edo ukatu dela jakinarazten den arte fase desberdinak ditu bekak. Hauek dira:

- Eskaerak aurkeztea: beka **“aztertze-fasean”** dagoela ikusiko du eskatzaileak.
- Dokumentazioa berrikustea eta falta diren dokumentuak eskatzea: dokumentuak eskatu badira, **“dokumentazioa aurkeztearen zain”** egongo da eskaera.
- Dokumentuak aurkeztu ondoren, **“aurkeztu da zuzenketa. Azterketa hastearren zain”** fasean egongo da eskaera, Administrazioak berrikusi ahal izan arte.
- Bekaren tramitazioa, **datu ekonomiko eta akademikoak** berrikusi ondoren. 20.000 eskaera inguru dira eta ezin dira denak aldi berean tramitatu.
- **Behin-behineko proposamena** argitara ematea eta **alegazioak** egiteko epea (10 lanegun) irekitzea.
- **Alegazioak** ebaztea: ez dago epe konkreturik. Ahalik eta azkarren ebazten saiatzen da. **“Alegazioen azterketan”** egongo da eskaera.
- **Behin betiko ebazpena** argitara ematea eta **gora jotzeko errekurtsua** aurkezteko epea (hilabete 1, egoitza elektronikoan argitara ematen denetik kontatzen hasita) irekitzea.
- **Bekaren ordainketa:** hilabete bateko gehieneko epean, behin betiko ebazpena argitara ematen denetik kontatzen hasita, matrikularen prezio publikoa izan ezik. Maiatza aldera ordaintzen da.
- **Gora jotzeko errekurtsuak ebaztea:** ebazteko epea 3 hilabetekoa da. Epe horretan Administrazioak ez badu ebazpena jakinarazten, ezetsi dela interpretatuko da. Geroagoko berariazko ebazpena (idatziz) baiestekoa edo ezeztekoa izan ahal izango da. Betiere ematen zaie errekurtsu guztiei erantzuna, ezarritako 3 hilabeteko epea pasa den arren.

2. Nire beka ebatzi den behin-behineko proposamena argitara eman dela aditzera emateko maila bat jaso dut. Non bila dezaket informazioa?

Bekei buruzko informazioa hiru toki desberdinetan kontsulta daiteke:

- Egoitza elektronikoaren **“Nire karpetan”** **banakako jakinarazpen** guztiak, **pertsona bakoitzaren datuekin** (behin-behineko proposamena, behin betiko ebazpena, dokumentazioa aurkezteko errekerimenduak), jasotzen dira. Sartzeko, ziurtagiri elektroniko baliagarri batekin identifikatu behar du norberak bere burua.

Hemen ezin da inolako tramiterik egin, proposamenaren xehetasunak edo errekeritutako dokumentuak **kontsultatzeko besterik ez da.**

- Bekak ebazteko Unibertsitate Komunitatea Artatzeko eta Zaintzeko zuzendariaren ebazpenak eta emandako eta ukatutako bekak aditzera ematen dituzten zerrendak, baina osagaiak zehaztu gabe, **egoitza elektronikoaren iragarki-taulan** argitaratzen dira.

Hemen ezin da inolako tramiterik egin, baina argitara ematen den data da alegazioak, behin-behineko proposamenaren kasuan, edo gora jotzeko errekurtsua, behin betiko ebazpenaren kasuan, aurkezteko **epetegi begira kontuan hartzen dena.** Egoitza elektronikoan argitara eman eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira kontatzen epeak.

- Unibertsitate-bekaren eskaera elektronikoan: bekari buruzko informazio guztia hemen dago eskura: proposamenaren xehetasunak, aurkeztutako dokumentuak, egindako tramiteak, ...

Bekari lotutako tramite guztiak egin daitezke hemen: errekeritutako dokumentazioa aurkeztea, alegazioa edo gora jotzeko errekurtsioa aurkeztea, bekari uko egitea, edozein aldaketa jakinaraztea eta dokumentuak aurkeztea.

3. Nire beka ebatzi da, baina ez dut inolako abisurik jaso. Nola konpon dezaket arazoa?

Proposamen edo ebazpen bat egoitza elektronikoan argitara ematen den bakoitzean, Eusko Jaurlaritzako Beka Zerbitzuak abisu bat, SMSren eta e-mail-en bidez, bidaltzen du proposamenean sartutako pertsonen beka-eskaeran jarri dituzten telefonora eta posta elektronikora. Batzuetan e-mail-ak Spam karpetan joan daitezke. Hori gertatu bazaizue, Eusko Jaurlaritzaren postak spam-ekoak ez direnen artean identifikatzea gomendatzen dizuegu.

Halaber, jakinarazpen elektroniko bat “nire karpetara”, bidaltzen den bakoitzean, SMS eta e-mail bat era automatikoki bidaltzen dira “nire perfilaren” blokean gaurkotu diren datuetara. Abisu horiek jaso ahal izateko, telefono eta posta elektronikoaren helbide bat jartzea ezinbestekoa da. **“Nire perfilean”** klik egin behar da eta **“datuak aldatu”** aukeratu behar da.

Bekaren eskaera elektronikoan eta “nire karpetan” harremanetan jartzeko telefonoak eta posta elektronikoak behar bezala gaurkotuta daudela betiere segurtatu behar da.

The screenshot shows the 'mi carpeta' web interface. The top navigation bar includes 'mi carpeta', a help link '¿Necesita ayuda?', and a 'Sede electrónica' logo. The main content area is titled 'Expedientes' and shows a list of documents. A sidebar on the left contains links to 'Expedientes', 'Notificaciones', 'Certificaciones', 'Pagos', 'Solicitudes en borrador', 'Mi perfil', and 'Salir'. The 'Mi perfil' link is highlighted with a red box. Below the sidebar, the 'Mi perfil' section is displayed, showing contact information: 'Idioma de contacto: Castellano', 'Sexo: Mujer', and 'Canal de notificación y comunicación: Electrónico'. Under the heading 'Datos para recibir avisos', there are fields for 'Correo electrónico:' and 'Teléfono móvil:', both of which are redacted with black boxes and highlighted with a red box. Below these fields, there is a consent statement: 'Ha dado su consentimiento para que estos datos de comunicación y aviso se utilicen de forma predeterminada en sus relaciones con los departamentos y organismos del Gobierno Vasco.' At the bottom of the profile section, there are two buttons: 'MODIFICAR DATOS' and 'VER HISTORIAL DE CAMBIOS', both of which are highlighted with a red box.

4. Proposamenarekin ados nago. Zer egin behar dut?

Proposamenarekin ados bazaude, onartzea gomendatzen dugu baina, onartu aurretik, dagozkizun bekaren osagai guztiak dauden edo ez ondo berrikus ezazu. Proposamena onartzeko, 6. galderan zehazten diren argibideak bete itzazu.

5. Ez nago proposamenarekin ados. Zer egin dezaket?

Ez bazaude proposamenarekin ados, **10 laneguneko epea**, egoitza elektronikoan argitara emanaz ebazpena jakinarazten den egunetik kontatzen hasita, duzu **alegazioak** aurkezteko. Ezin direla alegazioak paperez entregatu gogora zaitez, erabat elektronikoa baita tramitazioa. Alegazioak aurkezteko, 6. galderan zehazten diren argibideak bete itzazu.

6. Zer egin behar dut proposamena kontsultatzeko, onartzeko edo alegazioak aurkezteko?

- Ziurtagiri elektroniko baliagarri baten bidez [aplikaziora](#) sar zaitez.
- **"Abian diren espedienteak "** atalean, **"espedientea ikustea "** n klik egin ezazu.
- **"Behin-behineko ebazpena "** atala aukeratu eta bi aukera izango dituzu:
- **Ados bazaude, "proposamena onartu "** ahal izango duzu.
- **Ez bazaude ados, "alegazioa "** aukera ezazu eta formulario bat irekiko da. Bete eta **"gorde "** botoian klik egin ondoren, **"gaineratutako dokumentuak "**, eransteke, aukerara sartu ahal izango zara.
- **"Gaineratutako dokumentuak "** atalean, aurkeztu nahi duzun dokumentua hautatu eta **"erantsi "** aukerara klik egin ezazu. Pantaila horretatik **"aztertu "** ahal izango duzu, aurkeztu nahi duzun dokumentua zure dispositiboan bilatzeko. Geroago, **"igo "** botoian klik egin ezazu.
- Eskaera osatu ondoren, **"alegazioa aurkeztu "** aukeratu eta **"izenpetu "** botoian klik egin ezazu, era elektronikoan izenpetzeko. "Onartu " ondoren, ziurtagiri elektronikoaren PIN eskatuko zaizu, izenpetzeko eta erregistro elektronikoa emateko. Alegazioa aurkeztu izanaren erregistroa elektronikoaren egiaztagiria deskargatu ahal izango duzu.
- Alegazioa behar bezala erregistratuta geratu dela baieztatzeko, zure eskaera **"alegazioen azterteza "** egoerara pasa dela egiaztatu behar duzu.
- Datozen asteetan zure bekaren behin betiko ebazpena argitara ematen denean jasoko duzu alegazioari emandako erantzuna. **Abisua emateko SMS eta mail bat jasoko dituzu.**

7. Elkarbizitza-unitatearen pertsona konputagarriak eta errolda-agiriko pertsonak ez dute bat egiten, zergatik?

Gurasoen dibortzioaren kasuan, araudiaren arabera biak direla eskatzailearen sostengatzaile ekonomiko nagusiak hartu behar duzu kontuan. Kasu gehienetan **"kanpo gurasoari "** (eskatzailearekin bizi ez dena) % 50ean konputatzen zaio, diru-sarretan eta ondarean. Horri buruzko araudiak xedatzen duena kontsulta dezakezu, **Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren aginduaren 15.4 artikuluan. AGINDUAREN ESTEKA**

Halaber, **gurasoen bikotekide berriei**, helbidean bizi badira, % 50ean **konputatzen zaizkiela** hartu behar duzu kontuan, zaintza partekatua kasuan izan ezik.

Bestalde, helbidean erroldatuta dagoen pertsonari, senidetasun-harremanik ez badago eta partekatutako etxebizitza baten alokairua justifikatzerik ez badago, % 50ean konputatuko zaio.

Era berean, gogorarazten dizugu **eskatzailearen 25 urtetik gorako anai-arrebak ez direla konputagarriak**, nahiz eta etxebizitza berean bizi.

8. Beste ikasle batzuek publikazioaren berri izan dute eta nik ez. Zergatik ez da nire beka ebatzi?

Ezin dira beka guztiak aldi berean ebatzi, 20.000 eskaera inguru baitaude eta proposamen desberdinak ematen baitira hilerok argitara. **Beken multzo bat ebazten den bakoitzean, interesatuei abisatzen zaie.** Eskaera “aztertze-egoeran” bada, itxaron behar da. Eskaera zein egoeratan dagoen kontsultatzeko deitzea ez da gomendatzen, beka ebatzi arte ez baita informaziorik emango.

Beka batzuk ezin dira hilabete batzuk pasa arte ebatzi, matrikula zabaldu nahi duela adierazi baitu eskatzaileak eta oraindik ez baita beka izateko exijitutako kredituen gutxienezko kopurura iristen. Kasu horietan hobe da matrikula zabaldu arte itxarotea, lehenago ebatziz gero ukatuko baita beka.

Zenbait kasutan, ez baita dokumentazio osoa aurkeztu eta dokumentuak eskatu behar baitzaizkio eskatzaileari, bekaren ebazpena atzeratzen da. Dokumentazioa eskatzen bada, “dokumentazioa aurkeztearen zain” egoeran egongo da espedientea.

9. Zer osagai jaso daitezke bekan?

Guztira 7 osagai hartzen ditu bekak, baina batzuk bateraezinak dira haien artean.

Egoitza	Aurrez aurreko ikasketak Ikastetxerako distantzia > 50km Joan-etorriarekin bateraezina	1.ataria: 3.850€ 2.ataria: 3.500€ 3.ataria: 2.700€
Aprobetxamendu akademikoa	Notaren arabera. Batez besteko nota 6,5etik gorakoa aurreko ikasturtean	100€ - 250€ 1. atarian bikoizten da
Errentari zenbatekoa lotutako	1. atarirako bakarrik, gizarte-laguntzak jasotzen badira eta exijitutako errendimendu akademikoa gainditzen bada.	1.700€
Ikaskuntzari eraldatze eta digitalari laguntza ematea	Errentari lotutako zenbatekoarekin bateraezina	1.ataria: 475€ 2.ataria: 375€ 3.ataria: 300€
Hiriarteko joan-etorriak	Euskadin kokatutako unibertsitateetan aurrez aurreko ikasketak egiteko	5-10 km.: 204€ 10-30 km baino gehiago: 409€ 30-50 km baino gehiago: 809€ 50-200 km baino gehiago: 1.052€
	Ikasketa erdipresentzialak (lineako laguntzarekin batera)	212€
Matrikularen prezio publikoa	Gehienez ere, ikasketa baliokideak egiteko 2025-2026ko ikasturtean EHU ⁿ matrikulatzearen prezioa, <u>prezio publikoei buruzko aginduak</u> xedatutakoaren arabera.	

10. Noiz ordainduko zaizkit osagaiak?

Osagaiak, behin betiko ebazpena argitaratzen denetik hilabete bateko gehienezko epean ordainduko dira. Prezio publikoaren kasuan, ikasturte bukaeran ordainduko da, kredituei buruzko datuak gaurkotzera eta unibertsitateen matrikula zabaltzeko epea igaro arte itxaron behar baita. Kasu batzuetan, prezio publikoaren osagaia unibertsitateari ordainduko zaio zuzenean.

11. Gaur egun matrikulatuta nagoen kredituen kopuruaren arabera kalkulatu da proposamena, baina matrikula zabaltzeko behar dut. Zer egin behar dut?

Exijitutako gutxienezko kredituen kopurura ez iristeagatik **beka ukatu bada**, alegazio bat aurkeztea gomendatzen da, matrikula zabaltzeko asmoa duzula kontuan hartzeko.

Matrikulatuta zauden kredituen kopurua 46tik beherakoa izateagatik **beka eman zaizun arren osagaiak % 50ean jaso badituzu**, alegazio bat aurkeztea gomendatzen da, 46 kreditu baino gehiagotan matrikulatu arte beka behin betikoz ez ebazteko. Horrela dagozkizun osagaien % 100 jaso ahal izango duzu.

Beka osagaien % 100ean eman zaizun arren matrikula zabaltzeko behar baduzu eta jakinarazi dizutena baino prezio publiko handiagoa badagokizu: ez duzu alegaziorik aurkeztu behar, ikasturtearen bukaeran, prezio publikoa ordaindu aurretik, matrikula-datuak gaurkotzeko jartzen baikara unibertsitate guztiekin harremanetan. **Kreditu gehiagotan matrikulatu bazara**, ordaindu aurretik hartuko dira kontuan. Halaber, **kredituak baliogabetu badituzu**, exijitutako gutxienezko kredituen kopurura iritsi ezean zure bekaren egoera alda daiteke eta beka osoa erreklama liteke.

12. Beka eman didate eta, ordainketa egin aurretik, kontu-zenbakia aldatu nahi dut. Zer egin behar dut?

Zure beka "proposamena" egoeran badago, uni.ikasketak@euskadi.eus helbidera posta bat ahalik eta lasterren bidali behar duzu, eta gaian kontuaren aldaketa adierazi behar duzu. Eskatzailearen DNI eta izen-deiturak adierazi beharko dituzu eta titularra edo titularkidea izan beharko duzun kontu berriaren IBAN ziurtagiria zein den esan beharko duzu.

Zure beka oraindik "aztertze" fasean badago, aldaketa bat aurkeztu beharko duzu eta, horretarako, bekara zure ziurtagiri elektronikoarekin sartu beharko duzu. "Dokumentuak aldatu-aurkeztea" aukera erabili beharko duzu eta behar den aldaketa aukeratu beharko duzu.

Zure beka "ebatzita" egoeran badago, ezin da dagoeneko aldaketa egin. Kontua itxita badago, banku-erakundeak zenbateko hori Eusko Jaurlaritzari itzuli arte itxaron beharko da. Goian adierazitako e-mail-ean eman beharko duzu abisua eta kontu-zenbaki berria adierazi beharko duzu.

13. Beka eman didaten arren uko egin nahi diot, ikasketak utzi ditudalako edo bateraezina den beste beka bat jaso dudalako. Zer egin behar dut?

Eskatutako bekari uko egin nahi badiozu, zure eskaerara sartu beharko duzu. Eskaeran "espediente ikusi" aukera ikusiko duzu eta "uko egin" botoian klik egin beharko duzu. Uko egiteko

zure arrazoa azaldu beharko duzu. Zenbatekoa dagoeneko jaso baduzu, itzuli behar duzula jakinarazteko idazki bat bidaliko dizugu eta itzulketa nola egin behar den adieraziko dizugu.

Gogora zaitetz: ikasketen matrikula bertan behera uzten baduzu, derrigorrean uko egin beharko diozu bekari. Ez baduzu egiten, ikasturtearen bukaeran beka itzultzea gehi berandutza-interesak erreklamatuko zaizkizu.

14. Ez didate garraioaren osagaia eman, baina gastu hori ordaindu behar dut.

Euskadin kokatutako unibertsitateetan aurrez aurreko ikasketak egiteko ematen da bakarrik hiriarteko joan-etorrien osagaia, 3. ataria ez badu gainditzen eta distantzia 5 kilometrotik gorakoa bada. Ematen diren zenbatekoak ondorengoak dira:

- 5-10 km: 204 euro.
- 10-30 km baino gehiago: 409 euro.
- 30-50 km baino gehiago: 809 euro.
- 50-200 km baino gehiago: 1.052 euro.

Ikasketa erdipresentzialak (lineako laguntzarekin batera) direnean, eskatzailearen ohiko bizilekuaren eta EAEko tutoretzetarako ikastetxearen arteko distantzia 50 kilometrotik gorakoa izan beharko da. Ematen den zenbatekoa 212€ izango da.

15. Ez didate egoitzaren osagaia eman eta alokatutako etxebizitza batean nengoela adierazi nuen eskaeran. Zer egin behar dut?

Gogora zaitetz: osagai hori jaso ahal izateko, **50 kilometrotik gorakoa** izan behar du ohiko helbidearen eta ikastetxearen arteko **distantziak**.

Osagai hori jaso nahi baduzu eta distantzia 50 kilometrotik beherakoa bada, garraiobide gutxi izateagatik eta klase-orduengatik ikasturtean ohiko helbidetik at bizi behar dela frogatu beharko da.

Eskatzailearen ohiko helbidearen eta dagoen ikastetxearen arteko **distantzia** laburrena **kalkulatzeko, era automatikoan** joko da aplikaziora eta, horretarako, **Google Maps** tresna erabiliko da, <https://map.google.es> webean. Autoz, autopista eta peajerik erabili gabe, distantzia laburrenaren kalkulua izeneko aukera erabiliko da. Bilatzeko orduan, ohiko helbidea jarri beharko da lehenik, eta ikastetxea geroago.

Eskaeran alokatutako etxebizitza batean zaudela adierazi baduzu eta justifikatzeko dokumentazioa aurkeztu baduzu, tramitazioan izandako akats batengatik izan daiteke, agian, “egoitzaren “ osagaia eman ez izana. Alegazio bat aurkeztea gomendatzen dizugu.

16. Proposamena onartu dut baina, geroago, alegatu nahi dudala konturatu naiz, osagai bat falta delako. Zer egin dezaket?

Proposamena argitara eman zenetik kontatzen hasita oraindik 10 lanegunak pasa ez badira, baduzu zure eskaerara berriz sartu eta alegazio bat aurkezteko aukera, proposamena lehenago onartu arren. Alegazioa aurkezteko, 6. galderan zehaztutako argibideen arabera jokatu beharko duzu.

17. Beka eman didate, baina dagozkidan osagaien % 50 besterik ez didate ordaindu. Zein da arrazoia?

Bekei buruzko araudiak 24. artikuluan xedatzen duena hartu behar duzu kontuan:

Eskatzaileak 12 kreditu baino gehiago eta 45 kreditu arte matrikulatzen baditu, % 50 txikiagoa izango da bekaren osagaien zenbatekoa, erabat ordainduko den matrikularen osagaia izan ezik. 12 kreditu edo gutxiago matrikulatzen baditu, matrikularen osagaia besterik ez dagokio. Matrikula 46 kreditukoa edo 46 kreditutik gorakoa bada, dagozkion osagai guztien % 100 jasoko du.

Matrikula orain 46 kreditutik beherakoa bada baina matrikula zabaltzea aurreikusten baduzu, alegazio bat aurkezteko aukera duzu, matrikulatutako kreditu berriak kontuan hartzeko eta osagaiak % 100ean eman ahal izateko.

18. “007 arrazoiarengatik- Diru-sarrerak behar bezala ez justifikatzea” ukatu didate beka. Zer esan nahi du horrek?

Beka jaso ahal izateko, diru-sarreraren eta gastuen kokapen koherentea justifikatu beharko da eta, deklaraturako diru-sarrerak matrikularen gastua gehi egoitzarena baino txikiagoak badira, ez da beka inolaz ere emango. Ondorengoak, besteak beste, adierazten dituen **Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren aginduaren 13. artikulua AGINDUAREN ESTEKA** berrikustea gomendatzen dizuegu:

Kasu konkretu bakoitzean gertatzen diren zirkunstantziengatik, beka edo laguntza emateko behar diren baldintzak faltsutu direla, edo beka hori ukatzea eragingo zuten zirkunstantziak ezkutatu direla, antzeman ahal izango da. Egoera horietan, eskatutako beka edo laguntza ukatuko da, emateari buruzko ebazpena aldatuko da edo zenbatekoa itzultzea erabakiko da.

Errenta-iturriak eskatzean ezkututzen badira,- norberaren edo besteren konturako lanak, pentsioak, lanbide liberaletan eta nekazaritza-, abeltzaintza-, industria- edo merkataritza-ustategietan aritzea, kapital higigarria, finkak, ibilgailuak, aparatuak edo beste ondare-elementu batzuk izan daitezke diru-iturriak,- eskatutako beka edo diru-laguntza ukatuko da, egin litezkeen beste jardura batzuen kalterik gabe.

Diru-sarrerak, gastuen mailari begira, behar bezala justifikatzen ez direla uste badu Administrazioak, eskatzaileek familiako pertsonaren batek edo familia-loturarik gabeko beste pertsona batek unibertsitatearen gastuak bere gain hartzen dituela alegatzen badute, egiaztatu beharko dute eta, horretarako, donazioa tokian-tokiko foru-ogasunean behar bezala erregistratua izan dela justifikatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko dute. Banku-transferentziak ez dira justifikatzeko agiri gisa onartuko.

Administrazioak diru-sarrerak- gastuen mailari begira, behar bezala justifikatzen ez direla uste badu eta errentaren aitorpenean jasota agertzen ez diren beste diru-sarrera batzuk, ez-erregularrak edo elkarbizitza-unitateko edozein kidek aparteko era batean lortutakoak, justifikatzen badira, zenbateko hori familia-unitatearen diru-sarrera atipikotzat joko da. Operazio hau egingo da:

zenbatekoa zati 60 hilabete (5 urte) eta emaitza bider 12 hilabete, behar den zerga-ekitaldian elkarbizitza-unitatearen diru-sarreratzat jotzeko.

Ondorio horietarako, inbertsio-funtsak, akzioak, aurrezki-kontuak, BGAE, ondarea saltzeak eragin dituen eta ohiko etxebizitzan inbertitu ez diren baliabideak, herentziak eta legatuak, donazioak eta antzeko batzuk diru-sarrera atipikotzat joko dira.

19. "014 arrazoiarengatik- etxebizitzaren kopurua gainditzea" edo "141 arrazoiarengatik – Baimendutako balio katastrala gainditzea" ukatu didate beka. Adierazten diren jabetzak ez ditut. Zer alega dezaket?

Lehenik eta behin, jabetzei buruzko araudiak 19. artikuluan adierazten dituen mugak gogorarazten dizkizuegu:

- Ondasun higiezin guztien kalkulaturako **balio katastralen batuketa ezin izango da 42.900 eurotik gorakoa izan**. Zenbateko horretan ez dira ohiko etxebizitza eta berorren trastelekua kontuan hartuko.
- Elkarbizitza-/familia-unitateko kide konputagarrien jabetza diren **etxebizitzaren gehieneko kopurua bi etxebizitzakoa, ohiko etxebizitza barne**, izango da.

Kasu batzuetan jabetza batzuk era automatikoan deskontatuko dira:

- Dibortzioaren kasuan, bi ohiko etxebizitza deskontatuko dira.
- Elkarbizitza-unitatean aitona/amonaren bat konputatzen bada, jabetzako etxebizitza 1 deskontatuko da.

Beste kasu batzuetan **beste jabetza batzuk deskontatu ahal izango dira, betiere behar bezala justifikatzen badira:**

- Sostengatzaile ekonomiko nagusien diru-sarrera den **norberaren konturako jarduera ekonomikoa** egiten den higiezinak deskontatuko dira. Salbuespen hori aplikatu ahal izateko, jarduera ekonomikoa 2024ko zerga-ekitaldian higiezin horretan helbideratuta dagoela egiaztatu beharko da.
- **Jabetza soil** bakarrik izaten den ondasun higiezinak ez dira kontuan hartuko, **gozamena elkarbizitza-unitatean sartuta ez dagoen pertsona bati badagokio**. Gaurko data duen Jabetza Erregistroaren ohar soil batekin egiaztatu beharko da egoera hori.

Zenbait kasutan akatsak izan daitezke konputaturako datuetan, jabetza batzuk bikoizten direlako edo dagoeneko salduta dauden jabetzea batzuei buruzko datuak ematen dizkigutelako ogasunek. Zein jabetza hartu diren kontuan zehatz-mehatz jakiteko eta alegatu ahal izateko, **ondasun higiezin guztiak zehatz-mehatz agertuko dituen Excel bat deskargatzea** komeni da. Eskaera elektronikora sartu behar da eta, proposamenaren xehetasunean, **"ondarea zehatz-mehatz"** en klik egin behar da.

20. Beka ukatu didate 008 arrazoiarengatik "Foru Ogasunek ez dute ezagutzen ekonomi sostengatzaile den kideren bat edota bere diru-sarrerak "0" kopuruarekin azaltzen dira, horretarako arrazoirik eman gabe", zer esan nahi du?

Arrazoi horrek ondoko hau esan nahi du: foru-ogasunei kontsulta egin ondoren, ezin izan dira sostengatzaile ekonomiko nagusiak diren pertsonetakoren baten datu ekonomikoak lortu eta haren diru-sarrerak zeron agertzen dira, justifikaziorik izan gabe. Pertsona horrek zergak Euskaditik at ordaintzen dituenean gerta daiteke hori. **Kasu horretan alegazio bat aurkeztu behar da, baita pertsona horren errenta-aitorpenaren kopia oso bat ere.**

Bekan lortu ezin izan diren arren pertsona horrek diru-sarrerak baditu, dokumentuak, egoera hau ziurtatzen duen informazio guztiarekin, aurkeztu beharko dira.

Pertsona horrek inolako diru-sarrerarik (lana, pentsioak, gizarte-laguntzak, ...) ez badu, nola bizi den eta DSBE bezalako gizarte-laguntzak zergatik jasotzen ez dituen azaldu beharko da.

21. Alegazioak egiteko epea pasa da eta eskaeran akats bat dagoela konturatu naiz. Nola egin dezaket erreklamazioa?

Proposamena argitara eman denetik kontatzen hasita 10 lanegunak pasa badira, zure bekaren behin betiko ebazpena argitara eman arte itxaron beharko duzu. Hortik aurrera, gora jotzeko errekurtsua aurkezteko hilabeteko epea izango duzu. Epe hori ere amaituta badago, **administrazioarekiko auzi-errekurtsua**, bide judizialeko, edo, salbuespen gisa, **berrikusteko errekurtsu berezia**, izango dira aukera bakarrak. Oso kasu gutxitan eta oso tasatuta onartzen da.

22. Gai ekonomiko batengatik ukatu didate beka eta kontuan hartu diren diru-sarrerak ezin direla zehatz-mehatz erakutsi aditzera emateko abisu bat atera da. Zergatik ezin dut ikusi?

Eskatzailearen gurasoak dibortziatuta badaude eta beka gai ekonomiko batengatik (errenta edo ondarea) ukatzen bada, Datu Pertsonalak Babestearen legeak ez du proposamena kalkulatzeko kontuan hartu diren datuak zuzen ikusteko aukerarik ematen, gurasoetako bat ez baita beka eskatzen duen pertsonarekin bizi.

Datuak ikusi ahal izateko, kanpo gurasoaren baimen bat aurkeztu behar da. [Baimenaren formularioa](#) deskargatu behar duzu, datuak osatu behar dituzu eta baimentzen duen pertsonak izenpetu behar du. Ondoren, izenpetutako formularioa uni.ikasketak@euskadi.eus helbidera bidali behar duzu. Mezuaren gaian "DATUAK KONTSULTATZEKO BAIMENA" jarri behar duzu eta eskatzailearen izen-deiturak eta DNI zehaztu behar dituzu. Gogora zaitez: ez bazaude proposamenarekin ados, alegazio bat ere aurkeztu beharko duzu.

23. Beka eman didate, baina prezio publikoen zenbatekoa "0" edo benetan dagokionaren % 50 agertzen da. Zergatik ez dut prezio publiko osoa jasoko?

Emandako bekei dagokien matrikularen prezio publikoan hainbat arrazoi daude egoera hori azaltzeko:

➤ Unibertsitate publikoetan matrikulatutako ikasleak:

- **Familia ugaria izatea kategoria orokorrean:** kasu honetan ikasleek matrikularen kostuaren % 50 ordaintzen dute eta horregatik bekan ere erdia ordaintzen da.

- **Familia ugaria izatea kategoria berezia:** kasu honetan ez da ezer ordaintzen matrikulatutako kredituengatik eta tasak bakarrik ordaintzen dira. Beraz, ez dagokio matrikularen prezio publikoen osagaiari.
- **Eskatzaileak % 33tik gorako desgaitasuna izatea edo zuzeneko senideren batek % 65etik gorako desgaitasuna izatea:** ez da ezer ordaintzen matrikulatutako kredituengatik, eta ez dagokio matrikularen prezio publikoen osagaia.
- **Terrorismoaren biktima edo genero-indarkeriaren biktima izatea:** ez da ezer ordaintzen matrikulatutako kredituengatik, eta ez dagokio matrikularen prezio publikoen osagaia.

Zure unibertsitatean matrikula egitean, inguruabar horietako edozein adierazi behar zenuen, dagokion salbuespena aplikatzeko eskubidea duzulako. Adierazi ez bazenuen, egoera hori zure unibertsitateko idazkaritzan argitu beharko zenuke.

➤ **Mondragon Unibertsitatean, Deustun edo Tecnumen (Nafarroako Unibertsitatearen Euskadiko zentroa) matrikulatutako ikasleak:**

Hiru unibertsitate horietako ikasleek ikasturte hasieran Eusko Jaurlaritzak sinatzen duen hitzarmenean sartuta egotea eskatu behar dute, Euskal Herriko Unibertsitateko matrikuletan salbuespen berberak aplikatu ahal izateko.

Goian adierazitako egoeraren batean dauden ikasleek hitzarmen bidez jasoko dute matrikularen prezio publikoari dagokion zenbatekoa, betiere hala eskatu badute. Hitzarmenaren bidez dagokion prezioaren % 100 jasotzen ez badu, gainerako zenbatekoa ikasturte amaieran ordainduko da, ikasle guztiei matrikularen prezio publikoaren osagaia ordaintzen zaienean.

Pertsona horiek ez dute inolako izapiderik egin behar Eusko Jaurlaritzaren bekan, ofizioz berrikusiko baita beka bakoitza, ikasle guztiek dagokion prezio publikoaren % 100 jasotzen dutela egiaztatzeko. Hala ere, garrantzitsua da gogoratzea unibertsitate pribatuetan ez dela inolaz ere matrikularen guztizko prezioa jasotzen. Bekaren osagai hau da, gehienez ere, Euskal Herriko Unibertsitateko ikasketa baliokide batean 2025-2026 ikasturterako matrikulatzeak balioko lukeen prezioa, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren Prezio Publikoei buruzko Aginduaren arabera (EHAA, 2025-06-19).